


Dena da iragana orain

Peru Iparragirre

Ez da erraza Iñigo Aranbarriren *Munduko tokirik ederrena* liburua (Susa, 2018) aritzean liburuan bertan topatutako hitzak ez lapurtzea. Iruzkiri honi izenburua ematen dioten hitzak hartu ditut liburutik, eta hauek ere ez dira iragaten uztekoak: «Oraingoak ez diren zarrastadak eta joanak diren izaerak». Hitzak lapurtzen jarraituta, kontraletik, oraingoan, «atzorik gabe ulertzetik ez dagoen oraina» da liburua osatzen duten hamar narrazioetan kontatzen dena. Iragan hori nola sublimatzen den, ostera orainean haragizatzeko, horra liburu honen gakoetako bat.

Itauna sortu zait liburuaren uberan: zerk pizten du oroimena? Zerk behartzen du gogoia ainea utzi eta atzera begirakoan jartzere-

ra? Datorkidan lehen erantzuna, zera da: etena. Badirudi, eta liburuan behin eta berriro ageri delako heriotza, denboraren jarria eteten dela, nolabait, heriotzarekin (edo antzerako hausturekin), eta memoria, historia, ez dela etenpuntu bilduma bat baino. Agian urrutitxo joatea da, baina baliteke liburu hau *Ibai ondoko*



'Munduko tokirik ederrena'

Idazlea: Iñigo Aranbarri. **Argitaletxea:** Susa.

jendea ipuineko Pirisen asmoaren gauzate bat izatea: «Zein hobe gure hildakoak baino zer garen azaltzeko». Azalpen lana, ordea, irau duenak egin behar du, eta oroimena da horretarako ezinbesteko lanabes kamutsa.

Desagerpena, haustura, etena, espazio konkretu batean jazotzen da. Urola bailara da gertaleku nagusia, eta pertsonaiak ez dira pertsonaia isolatuak euren ipuin bereizietan; elkarren garaikide, elkarren aurrekari eta elkarren ondorengo ere badira askotan. Etenpuntuaren artean loturak egiten ditu Aranbarri testuei osotasun bat emanez, zeinak liburuako gertakariak gutxi gorabehera mapadibora-lerro lauso batean kokatzen laguntzen baitio irakurleari.

Izaera konkretu horrek ez du, halaber, kontatzen denaren mundurako joera zapuzten. Bien arteko orekan mantentzen da. Nahiz eta, zalantzarik ez, bailarako biztanleek edota liburuan zehar topatutako erreferentziak eta bizipenak, giroak, gertuko dituztenek geruza gehigarri bat izango duten, testuetara are gehiago gerturatzea erraztuko diena.

Bikoiztasun hori, partikularraren eta mundurakoaren artekoa, oroimenari ere badagokio, nolabait. Pertsonaien oroitzapenak osatzen dute liburua, baina oroitzapenok gutxitan dira pribatuak, beti dagozkio kolektiboari, pertsonaia kolektiboari dagokion heinean. Deigarria da, uneka, nola lortzen duen Aranbarri historia eta espazio konkretuetan zehar zabaltzen den kolektibo hori bizitzara ekartzea, haien oroitzapenak bizitzara ekarri eta irakurlearen oroitzapenetan txertatuz.

Iraganaren eta orainaren arteko geure baitako lotura bakarra dira oroitzapenak, eta haietatik mintzo dira pertsonaieko asko. Lehen pertsonan kontatzen dute beren historia, orainaldia azaldu nahian, baina, orobat, iraganaren bidez zurrutu nahian. Nire irudiko, *Aldaira* ipuinean jotzen du goia liburuak, testu honek sortu dit, bereren, zirrararik handiena. Kontaketaren erritimoa eta iraganaren eta orainaldiaren arteko tentsioa larrituz doaz, elkarriketek bakarriketari lekua utzi ahal, harik eta konturatzerako su ez-tian jarritako lapikoko ura irakin-puntura heltzen den arte, irakurlea barruan ahaztuta.



'Xabiroi'. 51. zenbakia.

Egilea: Askoren artean. **Argitaratzailea:** Ikastolen Elkarte.

Xabiroi komiki aldizkariak Sanvi, Harkaitz Cano, Iñaki Holgado, ZaldiEroa, Unai Iturriga, Manu Ortega, Exprai, Asisko eta Mikel Begoñaren sinadurak bildu ditu, besteak beste, zenbaki berria. Elkarrizketaren atalean, Mikel Santos Belatz marrazkilariaekin hitz egin du Iñigo Astiz kazetariak.



'Mutuaren hitza'

Egileak: Laurent Galandon eta Frederic Blier. **Argitaletxea:** Harriet.

Paris, XX. mendearen buketara. Celestino Noirt gazteak, herriko bizimodua atzean utzita, hirira joko du zinemagile bihurtzeko ametsa borrokatzeko. Harren ibilien bitartez, zinema munduaren hastapena agertzen du Laurent Galandonen gidioarekin eta Frederic Blieren marrazkiekin osatutako komiki honek.



'Ustezko fikzioak'

Egilea: Alvaro Rabelli. **Argitaratzailea:** Autoedizioa.

Alvaro Rabelli idazle bizkaitarra 59 kontakizun labur bildu ditu berak auto-editatutako argitalpen honetan. 2005etik hona harako eta honako idatzitako testuak bildu ditu, askotarikoak: ipuin klasikoetatik fikziozko biografietara. Jose Carlos Torrek ilustratu du argitalpena.

Gaur-gaurko obsesioa

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Identitatea. Nor garen, zein desberdin garen, eta, akaso, zer gutxi inporta dion honen guzti honek.

Kandido desberdin sentitzen den pertsonaia bat da. Hala aurkezten digute, hala dela erakusten zaigu, eta guk sinistu egiten dugu. Ez da zaila, bidenabar esanda, zeren, nor ez da besteengandik desberdin? Ez al da akaso gaur-gaurko obsesioa zein desberdin garen azpimarratzea?

Gai aktuala aukeratu du Pintadera-Inaraja bikoteak, eta 2018ko Compostela saria jaso dute —«merezimendu osoz» idazteko nintzen, baina zer dakit nik album hau saritzeko bazterrean gelditu diren gainerako lanei buruz? —, inguruko sariketa garrantzitsuena, album ilustratuetan.

Tamaina handikoa da, luzea, tapa gogorkekoa, 0 eta 4 urte bitarteko irakurleentzat gomendatua. Harrigarria gertatu zait azken datu hori: titiko umeek nortasun kezak zituztenik ez nekien. Alta, nire ondoko 13 urteko liburu-jaleak esan dit asko gustatu zaiola, bere buruaz pentsatzen jarri duela, baina bere gelako astapotroi alferrik eramango diedala, pentsatzekoak ez zaizkiela gustatzen.



'Kandido eta besteak'

Idazlea: Fran Pintadera. **Ilustratzailea:** Christian Inaraja. **Itzultzailea:** Uxue Rey. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

Ipuina 3.0

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tradiziozko ipuinen barruan, aparteko lekua gordetzen dute kateatutako animalien ipuinek. Irakurle gazteenentzako propio sortuak dira, eta umoreak eta haziz doazen esaeerak eraman dute hari narratiboa.

Beren garrantziaren neurria har dezagun, ipuinak sailkatzeko dagoen sistema estandarrean, Aarne-Thomson sailkapenean, *Cumulative tales*-en zatirik handiena hartzen dute; azpi-sail horretan dauden 2.000 eta 2.100 ipuin moten arteko gehienak animalienak izaki. Zehazki, esku artean dugun *Ez da nire errua!* albumeko ipuina, 2.015 motaren edota 2.030 motaren aldaki gisa har daiteke. Beste erreferentzia esanguratsu bat ematearren,

Sara C. Bryant-en *How to tell stories to children* ospetsuan, badira bi ipuin album honen kontakizunaren oso antzeko direnak.

Album honetan, gainera, aurreko ezaugarriek gehitu behar diegu ilustrazioek erasten duten aparteko indarra, eta letra larrien erabilera buruargiak irakurle hasiberriari eskaintzen dion aukera.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Voltzen bertsio honek mezu aski pedagogikoa dakarrela, maisueriarik gabe emana, gainera.



'Ez da nire errua!'

Idazlea eta ilustratzailea: Christian Voltz. **Itzultzailea:** Xabier Olarra. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.